

BOSTGARREN GAIA: ORDENAMENDU KONSTITUZIONALAREN HELBURU ETA BALORE NAGUSIAK

1. IKUSPEGI HISTORIKO ETA KONPARATUA

Gaur egungo Espainiar konstituzioak ikuspegi historikotik esan dezakegu 1812-1869-1931 konstituzioen tradizioa jarraitzen duela. Ikuspegi konparatutik gerraosteko konstituzionalismoaren eragina; II. mundu gerra ondoren jaiotzen den konstituzionalismo sozialaren eragina (eskubide sozialak jasotzen dira.) Esaten da Espainiako konstituzioa konstituzionalismo mota horren bigarren olatuaren parte dela; zehazki diktaduratik demokraziara pasa ziren estatuetan Grezia, Portugal eta Espainiar estatua.



2. 1978ko KONSTITUZIOAREN HELBURU ETA BALORE NAGUSIAK

Helburu eta balore nagusi horiek konstituzioaren hitzaurrean finkatzen dira. Espainiar konstituzioarenak hurrengo hauek dira:

- 1- Bizikidetzaren demokratikoa bermatu, ordena ekonomiko eta sozial justu batean
- 2- Zuzenbide estatu bat sendotu
- 3- Babesa eman Espainiarrei eta Espainiako herriei
- 4- Kulturen eta ekonomian aurrera egitea
- 5- Gizarte demokratiko bat
- 6- Harreman baketsuak munduko beste herriei

Hitzaurre hau, zuzenbide estatu sozial eta demokratiko bat finkatzeari buruz hitz egiten du. Helburu horiek bete ahal izateko konstituzioak hainbat elementu ditu:

- Konstituzioak indar juridiko loteslea du
- Konstituzioaren subiranotasuna (botere publiko guztiak konstituzioaren menpekoak dira)
- Konstituzioa balore sistema bat da eta balore horiek lotesleak dira.

PREÁMBULO

La Nación española, deseando establecer la justicia, la libertad y la seguridad y promover el bien de cuantos la integran, en uso de su soberanía, proclama su voluntad de:

Garantizar la convivencia democrática dentro de la Constitución y de las leyes conforme a un orden económico y social justo.

Consolidar un Estado de Derecho que asegure el imperio de la ley como expresión de la voluntad popular.

Proteger a todos los españoles y pueblos de España en el ejercicio de los derechos humanos, sus culturas y tradiciones, lenguas e instituciones.

Promover el progreso de la cultura y de la economía para asegurar a todos una digna calidad de vida.

Establecer una sociedad democrática avanzada, y colaborar en el fortalecimiento de unas relaciones pacíficas y de eficaz cooperación entre todos los pueblos de la Tierra.

HITZAURREA

Espainiako nazioak, justizia, askatasuna eta segurtasuna ezarri, eta huraosatzen duten guztien ontasuna bultzatu nahi du, eta, bere subiranotasuna erabiliz, hurrengo borondatea aldarrikatu du:

Bizikidetasun demokratikoa bermatzea, Konstituzioaren eta legeen barruan, ordena ekonomiko eta sozial zuzenaren arabera.

Zuzenbideko estatua indartzea, lege-agintea herri-nahiaren azalpen bezala ziurtatuz.

Espainiar guztiak eta Espainiako herri guztiak babestea giza eskubideen egikaritzan, baita beraien kultura eta tradizioak, hizkuntzak eta erakundeak ere.

Kultura eta ekonomiaren garapena sustatzea, guztiei bizi-maila duina ziurtatzeko.

Gizarte demokratiko aurrerakoa ezartzea, eta lurreko herri guztien artean harreman baketsuak izan daitezzen eta lankidetzara eragingarria sendo dadin laguntzea.

3.ZUZENBIDE ESTATU SOZIAL ETA DEMOKRATIKOA

1. ZUZENBIDE ESTATUA

Hiritarrak eta botere organoak arau juridikoen menpeko diren Estatuak. Gaur egun zuzenbide estatuari buruz hitz egiteko eskubideen errespetua bermatzeari buruz ere hitz egin behar dugu. Boterearen erabilera ez da diskrezionala (agintariak ezin dute boterea nahieran erabili). Zuzenbide Estatuaren helburu nagusia herritarra babestea Estatu botereen organoetatik edo Estatu botereen arbitrariorotasunetik. Zuzenbide estatu baten osagaiak:

- Lege inperioaren printzipioa (legearen nagusitasuna); (el imperio de la ley, gaztelaniaz). Hau esan nahi du legea Estatuako ekintza guztien ginetik egon behar dela.
- Botere banaketaren printzipioa
- Administrazioaren legalitatea. Administrazioa jokatu behar du aurrez emaniko arauetaz edo legeen arabera; administrazioa erregimen juridiko propio bat izan behar du, erregimen juridiko baten arabera funtzionatu behar du.
- Oinarrizko eskubide eta askatasunen bermea



2. ESTATU DEMOKRATIKOA

Bere subiranotasuna herrian oinarritzen duen Estatua da. Horretarako betekizun hauek bete beharko ditu:

- Hauteskundeak, herri subiranotasunari lotuak
- Elkarte, sindikatu eta alderdi politikoak sortzeko askatasuna; hauei eskatzen zaie prozedura demokratikoak jarraitzea.
- Hiritar guztien parte hartzea sustatzea politika publikoetan
- Politika publiko pro-aktiboak; hemen esan nahi da, herritarren aldeko kanpainak



3. ESTATU SOZIALA

Gizarte ongizatearekin konprometiturik dagoen Estatua, hori bai marko ekonomiko-kapitalistan murgiltzen dena. Estatu sozialaren defendatzailearen esaten dute kapitalismoa domestikatu behar dela. Estatu komunisten ereduak aldiz esaten dute kapitalismoarekin amaitu behar dela, nola ez dago hori domestikatzerik. Estatu sozialaren osagaiei dagokionez:

- Estatua pasatzen da abstentzionista izatetik hornitzailea izatera. Hornitu behar ditu herritarrak gutxieneko bizi maila batez (RGI, adibidez)
- Eskubide ekonomiko sozial eta kulturalak bermatzen dira
- Berdintasun materialaren printzipioaren garrantzia.



4.MONARKIA PARLAMENTARIOA

Abiapuntua Konstituzioaren 1 artikuluan (1.3 artikulua, bertan ezartzen da monarkia parlamentarioa) eta II. tituluaren koroa arautzen da (56-65 artikuluen bitartean) ; oinarritzko eskubideen atzetik. 1978ko konstituzioa egin zutenek bertan jarri zuten monarkia funtsezkoa zela ikusten zutelako, monarkia blindatu nahi izan zuten. Planteatzen da erregea estatu burua dela baina ez du botere exekutiborik edo botere betearazlerik. Printzipioz ez du prozesu politikoetan parte hartzen. Erregeak egiten dituen gauza guztiak gobernuak berretsi behar ditu. Konstituzioak erregea blindatzen du; erregea ez du inoiz tribunal baten aurrean amaituko. Gobernua parlamentuaren menpeko da; tresna ezberdinak ditu parlamentua (inbestidura, zentsura mozioa, gobernuaren sesio kontrola...).



5.AUTONOMIEN ESTATUA

Estatu erari dagokionez Estatuaren batasun nazionalaren printzipioaren bueltan antolatzen zen, baina autonomi eskubidea onartuz nazionalitate eta erregioei. Abiapuntua Espainiar konstituzioaren 2.artikulua eta hau arautzen da Espainiar konstituzioaren VIII tituluaren, bertan estatuaren lurralde antolaketa arautzen da (137-158 artikuluen bitartean); eredu autonomikoa irekita utzi zen konstituzioan, hau esan nahi du, nazionalitate eta erregioei autonomiarako eskubidea onartzen diela eskubidea baina finkatu gabe zeinek eta norekin finkatu behar duen autonomia bat.

Are gehiago, hitz egiten da nazionalitate eta erregioez baina ez da esaten zein den nazionalitate eta zein erregio. Eredu autonomikoa irekita baina bi mugarekin:

- 1- Espainiaren batasuna
- 2- Debekaturik dago Autonomi Erkidegoen federazioa

Autonomia lortzeko bi bide planteatzen ditu konstituzioak: azkarra eta mantsoagoa

Autonomia heltzen da botere exekutibo eta legegilerara baina ez da heltzen botere judizialera.

Autonomia EZ da SUBIRANOTASUNA; autonomia botere mugatua da.



6.BESTE BALORE BATZUK

1.Artikulan balore nagusiak jasotzen dira (askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoa), printzipioz ordenamendu juridikoaren irizpide nagusiak dira. Balore abstraktuak dira eta interpretaziorako margen zabala uzten dute.